

IRAGARKIA

223. ALDIZKARIA - 2025eko azaroaren 7a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA BERRIOZAR

Deialdia, bete dadin eskola-sustatzailearen plaza bat, oposizio-lehiaketaren bidez. Izendapena

Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko ekainaren 11ko erabaki baten bidez, honako hau onetsi zen: deialdia, bete dadin eskola-sustatzailearen plaza bat, oposizio-lehiaketaren bidez, Berriozarko Udalean jarduteko (123 zenbakia du plantilla organikoan). Deialdia argitaratu zen 2025eko 130. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 1ean.

Probak bukatu ondoren, kalifikazio-epaimahaiak izendapen proposamena egin zuen, puntuaziorik handiena eskuratu duen izangaiaren alde (betetzen zituen deialdian eskatutako baldintzak, eta gainditu zituen hautaprobak). Proposamen hori deialdiaren web-fitxan argitaratu zen, 2025eko urriaren 15ean.

Berriozarko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki zuen proposatutako izangai hau izendatzea: Edurne Iriarte Ugalde. 123 zenbakidun lanpostua, eskola-sustatzailea.

Izendatutako izangaiak 2025eko azaroaren 10ean jabetu beharko du lanpostuaz.

Aditzera ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan. Halaber, ohartarazten da erabaki honen aurka errekurtsio hauek jar daitezkeela:

- a) Berraztertze errekurtsioa, ebazpena eman zuen organoari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzendu behar baitzaio administrazioarekiko auzietan eskumena duen organoari, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

Berriozarren, 2025eko urriaren 30ean.–Alkatea, Iker Mariezcurrena Celaya.

Iragarkiaren kodea: L2514154